



## ZURUK, sms bitartez partida irabaztera gonbidatzen gaitu



"Ezagutzen ditut gureak baino partida garrantzitsuagoak jokatzen dituzten pertsonak. Egunero-egunero, familia elikatzekeo janaria jokoan izaten dutenak, lurlean edo koltxoi gainean lo egitea, seme alabak esk-olara eramatea edo eta medikua bisitatzea jokoan jartzen dutenak."

David Zurutuza Veillet

David Zurutzak taldea osatu nahi du Mozambikeko iparraldean ahaztuta bizi diren nekazariekin batera partida irabazteko.

Kanpainaren helburua, nekazariekin elkarlanean jarraitzeko ahalik eta SMS gehien batzea da. Batz besterik inbertitutako euro bakoitzeko, nekazariak 5 euro lortuko dituelako bere nekazal ekoizpenari ezker.

**MUNDUKIDE hitzarekin, 28014ra** 1.20 €ko balioa duen SMS-a bidaltzeaz bat ekipoko partaide bihurtuko zara eta "Zuru"ren kamiseta eskuratzeko zozketan parte hartuko duzu.



#Nieremundukidenaiz #lagunduirabazten

1,2€ko balioa (ekarpen osoa Mundukiderentzat). Diru-laguntzak lortzeko, kanpaina solidarioen SMS zerbitzua; Altiria TIC-ek [www.altiria.com](http://www.altiria.com), eta Asociación Española de Fundraising, [www.aefundraising.org](http://www.aefundraising.org)-k zuzendua. Bezeroen arreta zenbakia: 902 00 28 98, Kode Postala: 36059 – 28080 Madril. Movistar, Vodafone, Orange, Yoigo eta Euskaltel-ek parte hartzen dute.

## La riqueza no gotea



**Jose Antonio Mendikute**  
Doctor en ciencias económicas y empresariales

Un profesor de estructura económica gallego explicaba con ironía que la economía del goteo aconseja que se deje a los mercados campar a sus anchas y, cuando las copas de los ricos estén rebosantes hasta los bordes, comenzarán a verter "gotas de licor y el líquido se derramará por toda la economía, aliviando las gargantas reseacas".

Pero los datos evidencian que una insignificante minoría de la población mundial acumula la quinta parte de la riqueza del planeta. Recientemente, la ONG Oxfam daba a conocer que 62 personas tienen la misma riqueza que 3.600 millones, un símbolo muy claro de la injusticia del sistema económico neoliberal. Es evidente que la riqueza no está goteando hacia abajo para penetrar en las capas sociales más bajas.

Como afirman algunos economistas, las políticas económicas tienden a centrarse en el crecimiento del PIB, pero el problema es que si ese crecimiento va al 2% de la población y la mayoría social apenas mejora su nivel de vida, además de ser injusto, se genera un problema sociopolítico.



## Metatutako esperientziaz herrialde berrietara

2017. urte honetan, bi lankide hasiko dira lanean proiektuen identifikazioaren bigarren fasean sakontzeko. Teknikariok Bolivia, Kolonia eta Ekuadorra joango dira, prestakuntza ekintzen bitartez hango erakundeekin batera lehen lankidetzara lanei ekiteko.



Mundukide Fundazioak epe luzerako programak egiten ditu. Mundukideren programetan garatzen diren jarduerak urteetan luzatzen dira, batzuetan harkadetan. Gure ustez, kooperazioaren bidez aldeztu ditugun aldaketek, beste edozein aldaketak bezala, prozesu luze eta ondo artikulatu beharra daukate. Hala, epe luzerako konpromisook bete beharrak hartaratu, Fundazioaren jardura programa gutxitan bildu behar izaten dugu; azkenak, Brasil, Kuba eta Mozambiken. 2015. urtean, aurrez zeuden programen aurrerapena ikusita, eta 2013an onartutako estrategiarekin bat eginez, programa berri bat abiaraztea erabaki zuen Mundukidek, Amerikako erdialdean eta hegoaldean identifikazio prozesu bati ekinez.

Hala Kuban nola Brasilen, prestakuntza, trebakuntza eta enpresa kudeaketa nahiz kooperatibismo arloko laguntza lantzen

ditu Mundukidek. Programa berrietan herrialde horietan metatutako esperientzia aprobetxatuko da. Esperientzia hau elikatzekeo, aipatutako herrialdeetako erakundeekin parte hartu dute, bai eta Mondragon esperientzia barruan kudeaketa eta prestakuntza arloetan esperientzia luzea duten pertsonen ere.

Identifikazioaren lehen fasea 2015 eta 2016 bitartean egin zen, herrialdeak hautatzeko azterlan baten bitartez. Azterlan ardazu zen testuinguruaren analisia, garapen premietan eta Mundukidek herrialde desberdinetan egiten dituen jardura moten egokitasunean. Identifikazioaren bigarren faseko Bolivia, Ekuador eta Kolonia hautatu ziren. 2018an, Mundukide Fundazioak, lehen ekintzak ebaluatu ostean, proiektu berria edo berriak zein herrialdeetan abiarazi erabaki-ko du.

## Laburrak

MONDRAGON UNIBERTSITATEko IKO graduoko gazte Intxaurrondoarra izan dugu iazko irailetik hasita komunikazio sailean praktikan. Mundukideko lan dinamika ezagutzeko aukera izan du Kike eta guk berriz, ekarri duen teknologia berrien ezagutza eta gaurkotasa gustura hartu dugu. Gradua Holandan bukatuko du Erasmus bekaren bitartez. Asko ikasi eta milesker Kike!

**Kike Otegi Luengas**

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ikaslea



Azkoitiarra da Kike ordezkaturako duen IKO Komunikazio graduoko ikaslea. Orain arte, Sicue bekarekin, Universidad Central de Cataluña eskolan aritu da ikus-entzunezko espezializazioan. Orain gurean da, komunikazio alorrean ditugun proiektu ezberdinetan ahal duen guztia emateko asmoz. Ongi etorri Saioa!

**Saioa Murua Caballero**

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ikaslea



Xaco es un ingeniero agrónomo gallego que en octubre, y dentro del programa de Mozambique, se hizo cargo del distrito de Balama. Xaco sustituirá en Balama a su paisana Neida Vila, que pasará a responsabilizarse del distrito de Montepuez. ¡Bom trabalho Xaco!

**Xacobo Nogueira Ferreira**

Coordinador del programa en Mozambique







## Emakumearen burujabetza

Sinesgaitza egiten bazaigu ere, Mozambiqueko nekazarien gehiengoak ia diru gabe bizi irauten du bere bizitza osoan eta egoera okerragoa izaten da emakumeen kasuan. Emakumeak, diru gutxiago edukitzeaz gain, gizonarekiko etengabeko dependentzia ekonomikoa pairatzen du eta honek dakartzan ondorio guztiekin. Ezkontza goiztiarrak, indarkeria pasarteak, gustukoak ez diren lanetan ibili behar izatea eta abar luze bat.

Garapenerako lankidetzan ezinezkoa da komunitatearen bidezko garapenez berba egitea genero berdintasunik ez badago. Garapenaren alde egiten dugun lanak desberdintasunak sortzen dituzten egiturak deuseztatzea bilatu behar du, kontuan izanik desberdintasun horien artean oinarri-oinarritzkoak direla generoari dagozkionak.

Mundukidetik, eredu patriarkala nagusi den mundu batean bizi gairela baieztatzen abiatzen gara, emakumeen gaitasunak eta eskubideak mugatuaz eta desberdintasunak sortu eta birsortuz. Genero berdintasunaren aldeko lanak bilatzen duena

da desberdintasun horiek gainditzea eta gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasuna bizitzeko esparru guztietara eramatea.

Mozambiken 17 urtetan bizitako esperientziari esker, badira programatik emakumeen autonomiari bultzada handia ematen dioten praktika eta aholku konkretuak: Aukeratutako ekimen ekonomikoak hasierako inbertsio txikia eskatu behar du, emakumearen diru gabeziak ekimena ez dezan baldintzatu. Ekoiztutako produktuak erabilera bikoitza izan behar du, familiak kontsumitu ahal izateko eta saltzerakoan etekin ekonomikoa ateratzeko. Bidaiazteko dituen zailtasunak kontuan hartuta, barazetik lortutako uzta herrian edo gertu saltzeko modukoa izan behar du. Jasotako uzta, gutxinaka saltzekoa izan behar du. Egunerokoan dituen lanei kasu egiteko, uzta lehor garaian ekoiztekoa izan behar du eta eurite garaioa bada, lan karga txikiduna.

Honelako praktiken ondorioz, urtez urte nekazaritza programan parte hartzen duten emakume kopurua gorantz joan da.

Izan ere, 2012an 680 baziren, 2016 urtean jadanik 4.350 izan dira, barazegintzan edo beste ekoizpen mota batzuetan aritu direnak.

Marrupa distributuko Nungo auzoan bizi den emakume batek, bigarren urtez jarraian tipula ekoizpenean aritu ondoren honela zioen:

*"Orain konturatu naiz gehiago arduratu behar dudala nire diru-iturria bermatzeaz, senarra lortzeaz baino".*



## Voluntariado cooperativo de Eroski en Brasil

MUNDUKIDE Fundazioa y EROSKI S.Coop continúan su andadura en el "Programa de voluntariado cooperativo para la transformación social".



Julio Martínez Arija en el punto de venta "Armazém do Campo" de Sao Paulo

Este año la persona socia de Eroski que se ha desplazado a Brasil para un año es Julio Martínez Arija, que sustituye a la socia Beatriz Diez ya reincorporada en Eroski tras dos años de acompañamiento en las actividades de formación y asistencia técnica en el Programa de desarrollo socioeconómico en colaboración con el Movimiento de Trabajadores Rurales Sin Tierra, MST. Desde MUNDUKIDE-LANKI la colaboración con el MST, se asienta en una forma de entender los procesos de desarrollo, centrados en el fortalecimiento de las capacidades y procesos locales. El Programa pretende fortalecer las capacidades técnicas, políticas y organizativas de trabajadores/as de áreas de la Reforma Agraria de Brasil para promover avances en materias de acceso a la tierra, la producción, la educación y el medio ambiente.

La colaboración de Julio Martínez Arija, está centrada en los procesos de comercialización de asociaciones y cooperativas del MST. Por un lado, acompañará la consolidación del punto de venta abierto en São Paulo el año pasado, conocido como "Armazém do Campo". Un espacio de venta de centenas de productos que vienen de asentamientos de la Reforma Agraria, de pequeños productores y de la producción agroecológica. Además, pretende ser también un canal de comunicación con la sociedad, transmitir los valores del movimiento, acercar alimentos ecológicos y saludables a la sociedad y ser un espacio cultural y de encuentro de diferentes movimientos sociales. Otra línea de trabajo, se centrará en el apoyo a la creación de herramientas de análisis para los concursos de compra pública de alimentos a los que acce-

den las cooperativas. En 2017, fruto del trabajo comprometido de MUNDUKIDE y EROSKI con las cooperativas y asociaciones del MST en Rio Grande do Sul se espera comercializar productos de más de 6.000 familias asentadas.

Por medio de este acuerdo de colaboración, se consigue mejorar la calidad de la intervención del Programa porque se unen competencias que son complementarias (MUNDUKIDE/cooperación, EROSKI/distribución). De esta forma, se consiguen ejecutar proyectos que no podrían llevarse a cabo por separado con el mismo nivel de eficiencia. El "Programa de voluntariado cooperativo para la transformación social" consigue transformar esta teórica complementariedad en un proyecto concreto, ejecutable y práctico.

Egin zaituz  
bazkide  
Házte soci@

[www.mundukide.org](http://www.mundukide.org) / 943-772010



Ainhoa Zeziaga Elexpuru, Arrasate.

2012ko abuztuan Mundukidek Brasilgo Paranán duen proiektua bertatik bertara ikusteko aukera izan nuen. Bertan lanean ari ziren Mundukideko kideak, proiektuaren helburuak eta MST mugimendua ezagutu nituen. Lau urte eta erdi pasatu dira orduetik, eta nola ez, lau urte eta erdi dira Mundukideko bazkide naizela. Konfidantza osoa dut Mundukideren proiektuan, baita bertan lanean ari direnen profesionaltasun eta gertutasunean. Nire ekarpenak benetan zerbitutarako balio duenaren sentipena dut. Batu zaituz ere taupadara!